

## Kultura

# Nork hil nahi du Elkanoren 2022. urtean?

Getarian Elkanoren mundu biraren omenez egiten duten Lehorreratze jaian girotu du bere lehen eleberria Kepa Iribar idazleak: '72 ordu'



Inigo Astiz



Kepa Iribar idazlea, atzo, Donostian, 72 ordu eleberria eskuetan duela. © ANDONI CANELLADA / FOKU

2022ko maiatzak 26



«72 ordu barru Robert Coffee hilko dut». Hiru egun baino ez dira falta Getarian (Gipuzkoa) Juan Sebastian Elkanoren mundu biraren 500. urteurrenaren antzezpena egiteko, eta festarako prestakuntzetan murgilduta dago herria. Poz, prestakuntza eta urduritasun itsaso horretan, ordea, bi talde abiatuko dira udaletxera ingelesez idatzita heldu den mehatxu horren egilearen bila, Ertzaintzarena bata, eta Aitor Letamendia detektibe pribatuarena eta Idoia Urdaneta zinegotziarena bestea. Atzerako kontaketa hori da Kepa Iribar (Getaria, Gipuzkoa, 1975) kazetari eta idazlearen lehen eleberriaren muina. *72 ordu* deitu du lana, eta eleberri beltzei eskainitako Uzta Gorria sailean argitaratu du Erein argitaletxeak.

Elkanoren figura da kontakizunaren ardatza, eta idazleak horregatik girotu du kontakizuna haren bidaia gogoratzeko herrian lau urtean behin antolatzen den Lehorreratze jaian. Eta aurten egingo dena hautatu du, zehazki, eleberria girotzeko. 2022ko irailaren 6aren aurreko 72 orduetan, zehazki.

Idazleak onartu duenez, mundu biraren bosgarren mendeurrenak piztu zion eleberria idazteko ideia. «Historiagileak entzunez eta irakurritz, pare bat elementurekin geratu nintzen. Bata da badakigula Elkanok zer egin zuen, baina ez dakigula oso ondo nor zen eta nolakoa zen. Eta ez dakigu XVI. mendean ez zegoelako ohiturarik dokumentuak gordetzeko. Eta bururatu zitzaidan bat-batean agertuko balitz Elkanok berak idatzitako eguneroko bat zer-nolako aurkikuntza izango litzatekeen hori».

Eta Elkanoren euskal jatorria da idazleari ideia piztu zion bigarren elementua. «Historialariek diotenez, Elkanorena ez da mundu zabalean sekulako sona duen izen bat. Nik uste, euskalduna izan ez balitz, edo atzerrikoentzat espainola, eta, horren ordez, ingelesa izango balitz, askoz ere ezagunagoa izango litzatekeela. Ingelesa izan balitz, Hollywoodek film bat egingo zukeen, gutxienez».

## Umore tanta bat

Eta, Iribarrek azaldu duenez, bi elementu horiek presente daude eleberrian. Elkanoren egunerokoa azaltzen da, eta Hollywood film bat egitekoa da hari buruz. Eta, hain zuzen, film horretako aktore nagusia da Robert Coffee.

Iribar Euskadi Irratiko esataria da lanbidez, eta, besteak beste, *Katedra* eta *Hiru Erregeen Mahaia* kirol programetan entzuten da haren ahotsa. *72 ordu* du lehen eleberria, eta, dioenez, «gustura» geratu da egindako lanarekin. «Gutziz ariketa ezberdina da irratian nik egiten dudana. Toki batera joan, frontoi batera, futbol zelai batera, eta han momentuan zer gertatzen ari den bat-batean kontatzea da nire lana irratian, eta, libururekin, egokitzen zait justu kontrakoa dena: patxadaz idatzi, idatzitakoa berrirakurri, berriro begiratu...».

Bere herriari bestelako begiz begiratzeko ere balio izan dio liburua, egileak dioenez. «Ni sekula ez naiz jarri Getariako Kale Nagusian begira ea non egin daitekeen atentatu bat; lehen aldia izan da».

«Tentsioa» eta «suspensea» nabarmendu dizkio lanari Inazio Mujika editoreak. Eta irakurleari Getaria gehiago ezagutzeko gogoa ere piztuko dio liburua, haren hitzetan. Kontakizunak umore tanta bat ere baduela gehitu dute. Mujikak lehenik: «Ez barrea edo algara eragiteko, baina badu ironia puntu bat». Eta baietz Iribarrek. «Alegia, nobela ez dela beltz-beltza, ezta?».

Iribarrek lan gehiago argitaratuko dituen esperantza agertu du Mujikak aurkezpen ekitaldian, eta, bestalde, euskal idazleei deia zabaldu die, genero beltzari eskainitako sailerako lanak idatz eta bidal ditzaten.

**Sareko BERRIAzalea:**

**Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: Berria diruz babestea.**

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobek sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaia berri ematen segitu.

**Izan BERRIAlaguna** ➔

## Gaiak

Kepa Iribar Erein Literatura euskaraz Literatura Arteak eta kultura

Gipuzkoa Euskal Herria

## Albiste gehiago



**«Esan zidaten kikilduta kantatuz gero ezinezkoa zela txapela irabaztea»**

AITOR BIAIN

Oraindik lortutakoari neurria hartu ezinik badabil ere, Abarrategi pozik dago larunbateko saioan egindako lanarekin. Ausart eta presiorik gabe kantatu zuen finalean, eta horri esker gailendu zen azkenean. Ametsa bete duela aitortu du: «Zoramena da».



**Fasmidoak ile-kordetan**

ELENA OLAVE

**'Vintage' ala zahar**

HAIZEA BARCENILLA



**Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeak bere jarduna etengo du**

ANDONI IMAZ

Zortzi urteko ibilbidearen ondoren, hilaren 30ean hartuko du azken ekitaldia. Hilabete batzuk barru, martxan egongo da Gasteiz antzokia.

## Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoa.

Pribatutasun politika eta Lege informazioa irakurri ditut eta onartzen ditut

idatzi zure posta elektronikoa Harpidetu

0 Comentarios Berria Política de privacidad de Disqus 1 Acceder

Favorite Tweet Compartir Ordenar por los más nuevos

Sé el primero en comentar...

INICIAR SESIÓN CON O REGISTRARSE CON DISQUS

Nombre

Sé el primero en comentar.

Suscribete Añade Disqus a tu sitio web **DISQUS**

## JARRAITU

Facebook  
 Twitter  
 Instagram  
 Youtube  
 RSS

## SAILAK

Gizartea  
 Politika  
 Mundua  
 Ekonomia  
 Iritzia  
 Berria TB

Kirola  
 Kultura  
 Bizigiro  
 Ibilkari  
 Infografiak  
 Argazkiak

## LEGEA

Lege Informazioa  
 Pribatutasun politika  
 Cookieak  
 Zozketak  
 Lan eskaintzak  
 Lizentzia  
 Publizitatea  
 Bidera zerbitzuak  
 MIDAS Media